

Artaundik Mugarrikolandara

Ikazkinen aztarnei jarraituz



Ibilbide honek Dimako Artaun auzotik abiatu eta Bizkaiko parajerik ederrenetako batera eramango gaitu:

Mugarrikolandara, Mugarrako haitz lerdenaren magalean.

Bidean, Leungane eta Keixa mendiak gaindituko ditugu, eta Bizkaialdeko ikazkintzaren aztarna ugari aurkituko.

Laratzu Taldea

Artaungo plazatik irtengo gara, San Bizente ermitaren ondotik, eta eskuinean dagoen lehenengo pista edo aldai garrantzitsua hartuko dugu. Bederatzi minutu inguru bide lautik ibilita, metalezko barrera batera helduko gara. Hemen aldaiak aldapa gogorra dauka. Metalezko barreran hasi eta ordu laurden batean Muruganera helduko gara, aurre-aurrean Akatsarropunta kareharritzko katea daukagula. Bertan bidebanatze bat aurkituko dugu. Eskuineko aldaia hartuko dugu.

Bidean aurrera eginik, hamar minutura edo, Markue zelaigunera helduko gara. Bertan artzain txabola bat bada, aurreko aldea mendizaleentzat zabalik duena. Aldaia hemen pinudi batean sartuko zaigu. Beste hamar minutu egin eta Zepalekura

helduko gara. Ezker aldean, Olaburueta-ko haitzak agertuko dira, eta eskuinean, Basabil mendia. Hemen leize bat dago, eta esan ohi da bere sakonera hain dela handia, ezen behin batean oilar bat hantxe bota eta Ugarran agertu baitzen, Olazabaletako galtzada zaharraren zubi dotoretik hur dagoen uharkan alegia.

Zepalekun ere bidebanatzea aurkituko dugu. Guk ezkerreko bidea hartuko dugu. Mapetan Leungane izenez agertzen den mendi hori, bere gailurreko mendi-ontzian ere izen berberarekin agertzen den arren, artzain, abeltzain eta ingurukoek Larrungane izenez eza-gutu dute betidanik. Gu lehenengo Leungane deitzen duten beste mendira igoko gara, Artaun menditik oso hur dagoena. Egia esan, mendi honen izena ere ez da Artaun, Keixa baino. Inguru

honetakoek ez diete azalpen konbentzi-garrik aurkitzen izen aldaketa hauei.

Hautatu dugun aldaia, ezkerrekoa alegia, guztiz latza da, benetan iketsua, baina laburra. Zazpi minutu barru, Pagofin deritzan lekuan izango gara, aldaia hiru bidetan banatzen den zelaigunear. Guk eskuineko bidea hartuko dugu, Leungane eta Keixa gailurrerariara doana. 15 minutu inguruko igoera aldapatsu baten ondoren, kareharri artean dagoen sakonune belartsu batera iritsiko gara; sakonune hau eskuinetik zeharkatuko dugu, eta bost minutu barru edo, Leungane gailurrean (905 m) egongo gara.

Leungane ikuspegia zoragarria da. Tontorrera ekarri gaituen norabidean Larrungane ikusiko dugu; bere ezkerrean, Artatzagane, eta ezkerreago oraindik, Mugarra haitzaren irudi lerdena. Gure atzeko aldean ikuspegi zabala daukagu: Aramotz, Pagozelai, Urtemondo, Gainzorrotz, Kargaleku, Atxukar, Azkanbitarte... Eskuinera, Arratia osoa.

Nahiko ondo nabaritzen den bidezidorra hartzen badugu, lau minutuan egongo gara Keixa gailurrean (907 m).

Artaun-Mugarrikolanda, ikazkinen arrastoei jarraituz

Erreferentziak

0 km	Artaun
2,5 km	Pagofin
3,3 km	Leungane
5 km	Mugarrikolanda
7,3 km	Elorrikolanda
8,5 km	Pagofin
11 km	Artaun



Txondorra nola egin

Abeltzainek diote mendialde honetan pagoen kopurua hain zela handia ezen euren gaztaroan egun eguzkitsu batean gerizpetik irten gabe joan baitzitezkeen Artaunetik Mugarrikolandara. Gero, 1950eko hamarkadan, ikazkintza nabarmen eta kontrolik gabe igo zen, eta oihan aberastasun guztia hondatu zuen. Jarduera trinko hura txondorrak egiten ziren plataformek ekartzen dute gaur gogora. Plataforma hauek, gehienak ia-ia desagertuak, biribilak eta horizontalak dira. Horizontaltasun hori aldapa handiko erripetan lortzeko, harritzko eustorma onak eraiki beharra zegoen. Ikazkintza lan hauetan, plataforma egin ondoren zutoin bat erdi-erdian sartu eta bere inguruan adar lehor-lehor mordo bat ipintzen zuten lehenengo sua egiteko. Ondoren, egurra metatzen zuten zutoinaren inguruan. Azpian egurrik handienak, gero ertainak eta gaineen txikiak, zuloak abarrekin tapatzen zituztelarik. Azkenik, txondorra orbel geruza batekin estaltzen zuten, eta gaineen lurrezko beste bat botatzen. Orduan, zutoina kendu eta sua ematen zioten txondorrari. Sua goiko aldera iristen zenean, txondorra itxi egiten zen. Gero, zulo batzuk egiten zizkioten han-hemenka makila batez baliatuz, aire apur bat sartu eta egurra astiro-astiro egosiz joan zedin. Sei mila kilo zureko txondor bat 12-13 egunetan bihurtzen zen egurikatz. Lau kilo egurreko, kilo bat ikatz.

Buzoiak Artaun jartzen du. Keixa gailurretik aurrerako ibilbideari eskuinean dagoen zidor pikorretik ekingo diogu; hiru minuturen ondoren, ingurune belartsu batera iristen da zidorra. Hemen 90° graduko bira eman behar da ezkerrean.

Keixako gailurretik 10 minutura, Ganekortara helduko gara. Inguru honetan guztian duela bost mila urte hasi zen artzaintzaren aztarrenak nabarituko ditugu. Mugarrarako norabidea hartuko dugu segidan. Bidea, orain arte gutxi igartzen izan bada ere, aurrerantzean argi nabarituko da. Ganekortako txabolaren beheetatik Mugarrikolandako iturrira 20 minutu ingurutan iristen da. Leku zoragarria benetan, Mugarra haitzaren irudi lerdenaren pean.

Pagofinera itzultzeko bidean, iturria atzean utzi ondoren, berehala dagoen lehenengo sakonunea ezkerretara uzten duen zidorra hartuko dugu. Pixka bat aurrerago, bidea banatu egiten da: guk eskuinekoari jarraituko diogu, pixka bat gorantz egiten duenari. Mugarrako iturritik irten eta zazpi bat minutura ataka batera helduko gara; ataka honek Panalapa trokarako irispidea ematen digu.

Iturritik 13 bat minutura, Elorrikolanda iritsiko gara; hemen zidorra aldai bilakatzen da. Elorrikolandan, eskorta baten hondakinak agertuko zaizkigu. Aldaitik aurrera eginez, Burdileku atakara helduko gara; izen hau dauka han kargatzen zirelako gurdiak (Arratian *burdiak*) Panalapatik eta Elorrikolandatik ateratzen zen iratzearekin. Ataka honetatik inguru garbian sartzen gara; eskuinean Aizkorriko konkor harkaitzua dugu, eta ezkerrean, Atalarrakoa. 15 minututan ailegatuko gara berriro Burdilekutik Pagofinera eta hemendik Artaunera.